

Joaquin Eizmendi Zubillaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930-2012)*

Aurkibidea

Biografia



Donostiako Egia auzoan jaio zen 1930ean. Etxean bertan sagardotegia zuten, Faustino izenez ezaguna eta taberna giroan hazia da. Aita Zizurkilgoa eta ama donostiarra zituen. Eskolan Sagrado Corazonen ibili zen Donostian, eta ondoren akademia batean. Soldadutza Orioko gainean egin zuen. Sagardotegia utzi ondoren, burdindegia jarri zuen etxean bertan, anaiarekin batera.

Zintak

DON-006

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-07-28
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-007

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-07-28
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Faustino izeneko taberna eta denda

- **Erref:** DON-006/002
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Egian jaioa da, Manuelenean. Bi anai eta gurasoak bizi ziren etxean. Faustino izeneko taberna eta denda zuten. Orduan gizonak bakarrik joaten ziren tabernara.

2. Sagardotegian gurasoei laguntzen

- **Erref:** DON-006/003
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sagardotegia ipini zuten eta gurasoei laguntzen aritzen zen eskolatik irteendakoan. Sagrado Corazonen ikasi zuen, dena erdaraz. Etxean euskaraz bakarrik aritzen ziren.</p>

3. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-006/004

- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan aroa eramanez aritzen ziren jolasean; pilotan eta baloiarekin ere bai, eta kaniketan, dirua zuenak egiten zuen.

4. Hildakoak zaldiz hilerrira

- **Erref:** DON-006/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Kotxerik ez zen izaten. Hildakoak zaldiz eramaten zituzten hilerrira. Apaindura askotako zaldiak izaten ziren, ordaindutakoaren neurriko adornuekin.

5. Sagardoa bertan egiten zuten

- **Erref:** DON-006/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardotegirako sagardoa etxean egiten zuten. Sagarra leku askotatik ekartzen zuten: Hernani, Aia, Goierri, Santander, Galizia... Kamoietan ekartzen zuten.

6. Tolare elektrikoa

- **Erref:** DON-006/007
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagarra txikitzeko makina bat zuten. Ondoren tolarean sartzen ziren. 30-40 tona sagar erabiltzen zuten. Tolarea elektrikoa zen. Hiru-lau aldiz egiten zuten egunean. Ura kendu osteko sagar-hondarrak baserritarrei ematen zizkieten ganaduarentzat. Sagardoa depositoetara joaten zen. Argindarrik ez zegoenean, eskuz egin behar izaten zuten.

7. Sagardoa txanpain botiletan

- **Erref:** DON-006/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Botilatan sartzen zuten sagardoa horretarako tresna egokia erabiliz. Mila botilari ordubetea sartzen zieten kortxoak. Txanpain botilak erabiltzen ziren, batean eta bestean batuak, baita erosiak ere. Etiketak ez zuten erabiltzen.

8. Sagardo gozoa nahiago

- **Erref:** DON-006/009
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa edalontzika ere saltzen zen. Sagardo gozoa 400-500 litro egunean saltzen zuten auzoan. Lehorra baino gozoa nahiago izaten zuten bezeroek.

9. Sagardoa egurrezko kupeletan

- **Erref:** DON-006/010
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:18:54. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Berrogei kupel inguru izaten zituzten, neurri desberdinetakoak eta egurrezkoak, haritz eta gaztainondoarekin eginak. 2.000-6.000 litro ingurukoak. 60.000 litrokoak izaten ziren depositoak. Hamalau sagar mota ekartzen zituzten.</p>

10. Sagar mota asko nahastean sagardotarako

- **Erref:** DON-006/011
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa kontserbatzeko ez zen ezer botatzen. Oraingo kontuak direla dio. Sagar gozoak, gaziak eta mikatzak, denak nahasten dira sagardoa egiteko.

Txalakak, mozoluak, errege-sagarrek... mota asko erabiltzen ziren baina jateko sagarrak ez du balio izaten.

11. Gizonak txikiteoan sagardotegietan

- **Erref:** DON-006/012
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Inguruan baziren sagardotegi gehiago ere. Gizonak txikiteoan ibiltzen ziren batetik bestera, sagardoa eta ardoa edaten. Emakumeak ez ziren ausartzen sartzera eta tarteka kanpoan edaten zuten.

12. Sagardoa zipotzetik

- **Erref:** DON-006/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegian jaten ematen zuten. Hamalau mahai inguru izaten zituzten, jarleku luzeekin. Meriendarekin ere etortzen ziren batzuk. Zipotzetik edaten zen sagardoa.

13. Bakailaoa pobreentzat

- **Erref:** DON-006/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:29:02. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Menua denetarikoa izaten zen; pobreentzat bakailaoa. Angulak askok ez zituzten nahi izaten.</p>

14. Egia baserriz betea

- **Erref:** DON-006/015
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserri asko zeuden inguruan. Orain dena etxez beteta dago.

15. Auzoko lantegiak

- **Erref:** DON-006/016
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:31:12. **Bukatu:** 00:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Tabakaleran auzoko emakume askok egiten zuten lan. Adreiluak eta teilak egiten zituen fabrika ere bazen auzoan. Gomarekin eta marmolarekin jarduten zuten lantegiak ere baziren, baita gehiago ere.

16. Aita zizurkildarra, ama egiatarra

- **Erref:** DON-006/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:36:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Inguruan baziren soroak eta, baina beraiek ez zituzten lantzen, ezta ganadurik izan ere. Aita ibilia zen Frantzian basoan lanean eta ondoren teila fabrikan. Zizurkilen jaioa zen, Legaralde baserrian; ama Latxaga baserrian, Egian.

17. Igandeetan mezetara fraideetara

- **Erref:** DON-006/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Fraideengana joaten ziren mezetara. Futbol zelaia ere bazen auzoan eta partiduak ikustera joaten ziren. Mezetara igandeetan joaten ziren, ahal zutenean. Dotrinara ere bertara joaten zen.

18. Oporrik ez

- **Erref:** DON-006/019

- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:40:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Lagunartean auzoan ibiltzen ziren eta parranda ere egiten zuten inguruan. Zinemara joaten ziren tarteka. Oporrik ez zuen izaten, soldadutzara joandakoan eta ezkondutakoan besterik ez.

19. Argindarra eta ura Donostian beti

- **Erref:** DON-006/020
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:40:49. **Bukatu:** 00:41:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argia eta ura etxe guztietan ezagutu izan du Donostian.

20. Arropa garbiketak etxean bertan

- **Erref:** DON-006/021
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Mantelak eta serbilletak etxean bertan garbitzen zituzten. Labadero ona zegoen auzoan.

21. Nudistak Tximistarrin

- **Erref:** DON-006/022
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bainatzera hondartzara joaten ziren. Geroago bainuak ireki zituzten inguruetan. Bainujantzia luzea izaten zen eta gizonezkoak barruko kamisetarekin sartzen ziren. Dirudun emakumeak albornozarekin ibiltzen ziren. Igeldo azpikaldeko Tximistarri nudista zen orduan.

22. Baserritarrek gurdiarekin barazkiak saltzen

- **Erref:** DON-006/023
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:49:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Astoan eta zalgurdian ibiltzen zen jendea. Baserritarrek gurdiarekin saltzen zituzten barazkiak eta diru mordoxka atera ere bai batzuek.

23. Arrain-saltzaileak kalez kale

- **Erref:** DON-006/024
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:49:57. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Arrain-saltzaileak ibiltzen ziren kalean. Arrandegiak ere baziren auzoan. Ondo jantzita ibiltzen ziren.</p>

24. Bonbatxoak eta alkandora lanerako

- **Erref:** DON-006/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Bonbatxoak eta alkandora erabiltzen zituzten lanerako. Banaketak egiteko txukunago joaten ziren. Furgonetarekin aritzen ziren. Berak tarteka bakarrik baina aitzak txapela erabiltzen zuen beti.

25. Udatiar emakumeak Kontxan, gizonak tabernan

- **Erref:** DON-006/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:53:37. **Bukatu:** 00:55:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Udatiarrak Madrildik eta Zaragozatik etortzen ziren trenez. Emakumeak Kontxako hondartzara eta gizonak Alde Zaharreko tabernetara joaten ziren.

26. Burdindegia ireki

- **Erref:** DON-006/027
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:55:34. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Burdindegia 40 urte ingururekin jarri zuten. Ezkondu arte ez zuen jornalik izan sagardotegian.</p>

27. Anaia eta biak burdindegian

- **Erref:** DON-006/028
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:57:36. **Bukatu:** 00:59:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Burdindegirako materiala Martuteneko kooperatiba batetik ekartzen zuten. Legazpiko "Patricio Etxeberria" enpresatik ere ekartzen zituzten. Anaia eta biak aritzen ziren lanean.

28. Etxebizitza berriak

- **Erref:** DON-006/029
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:59:22. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

60. hamarkadan egin zuten etxe berria, zazpi solairukoa. Barreneko solairuan burdindegia jarri zuten. Etxebizitzaren prezioak esaten ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com